

SENARTEIKO BI MUTXURDINAK

par Martin Saldumbide

Memen agertuko dira

Frantxixka , geroan Luixa , 24 urte . Senarteiko neskatoa
Koxepa , 20 urte , haren ahizpa
Maria , 55 urte , horien ama
Gabriela , 50 urte } Senarteiko bi ahizpa mutxurdinak
Zeleztea , 45 urte }
Marieder , 60 urte , Ameriketako tanta

-°-

Mêmes décors pour les 3 actes : la salle à manger des 2 vieilles filles ;
vieux meubles , etc . etc...

Acte premier

Scène I

Frantxixka , seule (au lever du rideau , Frantxixka fait le ménage et époussette maladroitement en fredonnant la chanson que voici) :

I

Mutxurdin egoiteaz eneatuxea ,
Nahi nuken gizonaz aphaindu etxea !
Painan gizonak orai zonbat ez du behar ? ...
Ez , ez , nahiago dut egon neska zahar !

2

Merkatu , besta , joko ... zonbat xahubide !
Hoietara gizona doa bidez-bide !
Holako gastuekin nor familian sar ?
Ez , ez , nahiago dut egon neska zahar !

3

Jaunxkilek dute utzi eskualdun xamarra ,
Floka , palttoa hartu , iler egin marra !
Holako bottiga bat gizon gisa nik har ? ...
Ez , ez , nahiago dut egon neska zahar !

4

Espartin , zinta , bonet , guziak utzirik,
Horra mutil gazteak anddere jauntzirik !
Trringarririk bada baten orde hamar !...
Hoier behatu gabe , nago neska zahar !

5

Hoiek dautet erranen :" Badut gauza frango ,
Aires enekin duzu eginen fandango !"
Segur duketelakotz ainhitz eskas bihar ,
Hola-hola nahi dut egon neska zahar !

6

Jaun nahiek baitute aise uzten lana ,
Moltsa-huts hoietarik hauxe duk andaña !...

Beren kexuan gero andreari jazar !...
Hobe dut egoitea beti neska zahar !

(à part , songeuse) Ez ahal naute aditu ! (elle va vers la porte , écoute un instant , puis se parlant à elle-même) Ez da nehor ezagun ! Jainko maitea , milesker !!! Xahu nintzan , bertzenaz !... (au public) Ez dakizue ? Orai , nik eman pertsu horiek dituzte beti ahoan ene atxeko anderek ... bai , Senarteiko bi ahizpa mutxurdinek . Kantuari erran arazten diote nahiago dutela egon neska zahar ! Nahiago ?... hori besterik da !... Egon beharko , bai ! Ez diote eta ... nehork behatzen ere !... Ezen , nork beha holako batzuei ... Ezin hurbilduak dira !... jite bat badute izigarria !... Mihi gaixtoak... beti denen jorran!... Zikoitzak , nola ! ... ongi ainitz egiten ahal luketelarik . Amerike-tako tanta aberats batek zer nahi igortzen baitiote . Bainan ez dakite emaiten !... Gaizkiak eta erasiak , bai , nahi duzun bezenbat , burrustan ... ahotik iragan ahala ! Nik zer aditzen dudan goizetik-arrats , ez dezaket erran nehola ere . Tonto aire bat badut barneko lan hautan ; alabainan , nola daiteke bertzela ? " antxet nunbeit ... Pausuko mendi batean sortua niz Oihanzokoko bordan ; gero , han egena beti ihatze pikatzen eta artzaingoan , nundik treba ninditaken hiriko lanetan ? ... Ez ahal da nehor ikasirik sortzen ! Eta ene etxeko-anderek ; eni erakusteko orde , errautsia naukate erasiaz ... egiazki pausukoa naizela ; neska herrebes , trukes , trunko , eskalapoi , menditarra bat ... Eta ni , orduan , gizagaizoa , are gibelago !... Ah ! etxeen banintz !... Eta harat ere nola itzul ? Hamar haur bagine-lakotz , ait'amek kanporat̄ ñgorri nute , neureaz egiteko adinean nintzala ... (se reprenant) ... Bainan , Frantxixa , zerentzat hoinbertze intzirika ?... Berriz lot banindadi lanari ? ... (elle se remet à epouser gauchement ; tout à coup , elle fait tomber le kaiku-pot de fleur , qui ne se brise pas) Zeruko ama !... zer egin dut ? ez nuen bertzerik eskas !... (elle se met les mains devant les yeux ...) Ai , ei , ai ! ezin mentura behatzerat !... (un instant après , osant regarder) Ah !... hola bederen ! Azkarra !... azkarra ! ... ez da hautsi !

Zelezta (entrant en coup de vent) - Hik , orai ere , heuretarik ? Zer zen harrabots hori ?

Frantxixa - Deus guti , deus guti , andere Zelezta ! lili untzia ... ?
Zelezta - Hizan bezalakoa ! Ene kaiku ederra lurrean !... Espres egiten dun
Frantxixa - Etzaitela samur , anderea ! (ramassant le kaiku) Ez da hautsi
... huna !

Zelezta - Ez dela hautsi ... ala , nahi huen pusketan ikusi ? Herresbes doblatua !... ez ditun hemengo herrautsak kentzen ahal , oro lurre-rat botatu gabe ?

Frantxixa (naïvement) - Hala-hala da , ori , anderia , erortzen ikasia dute , hautsi gabe !

Zelezta - Ixil hadi , erroarazten nun ! Bertzela ere , erran gogo daunat ehaizela batere guk behar bezalakoa . Aseak eta gehiago gaitun , Gabriela eta ni , hire jestuez ; eta izkiriatura dinat hire etxekoer.

Frantxixa - Ene etxekoer ?

Zelezta - Bai , hire etxekoer igorria jin diten hire bila !

Frantxixa - Ez bainuzue atxiki nahi ?

Zelezta - Hi baino , gabea hobe dun !

Frantxixa (sanglotant) - Ez , otoi , ez ! Joko naute etxekoek ! ... emen egon !!!!

Zelezta - Ez denat galdetzen zer nahiago dunan . Hiru amaren beha gauden !

Frantxixa - Ez araiz , holakorik ?

Zelezta - Bai , hori-eta bera !

Franxixka - Hoña bada, ene buruaz bertzerik ...

Zelezta - Nola ? haizen bezalakoa !

Frantxixka - "ne burua urerat ...

Zelezta - Nahi dunan bezala ! Ez haatik , egun ; ez baita hiretzat jalitzeko eguna !

Frantxixka - Banoa , orai berean ! ...

Zelezta - Aski hola ! egizan hire lana , eta bakea , gero , niri !

Gabriela (entrant , affolée , une lettre à la main) - Zelezta ! Zelezta !
... harrigarri dun !

Zelezta - "er ote ? ... zer da ? ...

Gabriela - Galduak gaitun ! ... Tanta ...

Zelezta - Tanta ? ... zer dion ? ...

Gabriela - Irakur zan letra hau !

Zelezta - Gure tanta , Marieder ?

Gabriela - Hura bera ! Zer egin orai ?

Zelezta - Zer zauku tanta hil ?

Gabriela - Hori balitz bederen ! ... Bainan , bisaia ; irakurran , ba , letra ! (pendant que Zelezta lit, ... a Frantxixka) Zer ari haiz , hi , hor ... neska zoroa ?

Frantxixka - NI ... ni ? ... ikusten duzu , andere Gabriela , fitsik ! ...

Gabriela - Habil , hortik , sukalderat !

Frantxixka - Banoa , anderia !

Gabriela - Ez dun goizegi izanen bixtatik joanen haizelarik ! Hik burua gal-araziko dautan !

Frantxixka (sortant) - Bai , anderia , bai !

Zelezta (qui , depuis qu'elle a commencé la lecture de la lettre, manifeste sa contrariété par des oh ...) ... ah!...) - Alo ! ... haundi dun ? ...

Gabriela - "ta orai ?

Zelezta - Nork ikusi du holakorik ? (éclatant) Izigarri dun ! bai , izigarri ! Baditakela holakorik ? (relisant la lettre à haute voix , lentement) " Mes cheriés ! Je vous ai dit depuis longtemps que je voulais vous faire une surprise ! " (à Gabriela) Surprise ! gisakoa, ne ! (continuant) " Aujourd'hui, je vous l'annonce comme toute prochaine . Je me sens vieille , hémas ! et , depuis la mort de votre cher oncle, rien ne me retient plus ici . Aussi ai-je décidé de rentrer en France. Il me tarde tant de vous revoir après trente ans d'exil , et de connaître enfin votre jolie Louise, ma chère petite héritière , que je quitte l'Amérique avec joie ! J'ai vendu toutes mes plantations , notre maison , nos propriétés et je m'embarque demain . Inutile , n'est-ce pas , de bavarder plus longtemps , puisque bientôt nous pourrons le faire de vive voix . Un télégramme vous indiquera le jour de mon arrivée . De loin , de bons baisers à toutes trois , en attendant les vrais . Marieder . (à Gabriela) Huri hiruer ! eta guk , hirugarrenik ez ! (s'animant) Uste badun ni hemen egonen nizala , tantari ongi-etorri egiteko ? ! Hauk zorigaitza ! Eta zer egin , guk , ateka gaixto huntarik jalitzeko ? ... "z dun deus egitekorik !... xahu gitun !... adio , tantaren ondoriotasuna !

Gabriela - Alo !... alo !... zerentzat holaka ? Iduri dun osoki aztoratua haizela !

Zelezta - Aztoratua , ez ; bainan , nola joka ?

Gabriela - Ez ote dugu deus hatzemanen ?

Zelezta - Hatzemanen ... hatzemanen ... iduri eta errex den ! Zer nahi dun egin ?

Gabriela - Oh ! la ! la ! Utzkin hortik gogoeta beltz hoik !... nihaur ere izi-arazten nun !!!

Zelezta - No , banoan hemendik !

Gabriela - Norat , bada ?

Zelezta - Norapeit ! eskuin... ezker ! Eginen dun tantarekin ahalik hobekiena !

Gabriela - Orai , aski ! Hobe dun jartzea .
 Zelezta (s'asseyyant) - Huna . Eta orai ?
 Gabriela - Orai , bila dezagun nola itzulika
 Zelezta - Errex baita ? ... berdin
 Gabriela - Baietz , baietz . Zertan ginan ? ... Ah ! bai . Esposatu eta , zenbeit
 egunen buruan , tanta Marieder joan zunan senarrarekin Ameriketaratz.
 Zonbat .. zonbat du horrek ?
 Zelezta - Uste badun mihiaren puntan ditudala xehetasun horiek ! ... "eiek
 ... heiek joanak ? ... Ez diakinat , nik ... Ago ! nik , orduan ,
 hamabost urte ; eta hik hogoi
 Gabriela - Bixtan den gauza ... badiakinat , bai , etzela atzo ! ... Eman
 dezagun baduela horrek gogoita-hamar bat urte . "eiek , beraz , Ame-
 riketan , eta bero-beroa , letrak abiatzen ...
 Zelezta - Jarraiki jarraikia zobeit urtez
 Gabriela - Hirur urteren buruan , ikusiz haurrik etzela heldu , tantak
 izkiriatu nardatua zela ... gu behar ginela ezkondu ; eta gero letra
 guzietan karba bera : zer zozokeria zen mutxurdin gelditzea !
 Zelezta - Ongi gohaindi arazi arte , beti solas berarekin !
 Gabriela - Ikusiz ez ginela ernatzen , egun batez igorri zaukunan ...
 Zelezta - Gure akulatzeko , arantz ...
 Gabriela - ... senharrarekin nola zen hitzartu , beren fortuna guzia utziko
 zutela gu bietarik lehen ezkonduko zenari , balinbazuen alabaño bat ,
 eta hora deitzen Luixa . Atxikia duken izen horri .
 Zelezta - Herraradino , ez dun sorgingorik !
 Gabriela - Utz nezan ba ? Orduan , huna : batek ez bestea gizonik hartu
 gabe ...
 Zelezta - Gizona har ? ... ah ! ... ez ! ...
 Gabriela - ... urte baten buruan , sinets-arazi ginionan ezkondu hintzela
 Dupommeau jaunarekin . Noiz hintzan alegia ezkondu ?
 Zelezta - Zoin bitzia haizen ! Uste badun orroit nizala ni ez-ezkontzeko
 urteaz !
 Gabriela - Ez nezanala nahas-araz ! ... Horra hi ezkondua ... tantak uste
 bederen ! ... Orroit hiz haren bozkalentziaz ? ... eta nola zozotu
 zen , bi urteren buruan igorri hiolarik etorri zela haren amestu
 alaba ? eta eman giniola haren hautatu izena , Luixa ?
 Zelezta - Ah ! zer bizia geroztik guretzat ! ... Tantari maiz eman behar
 alegiazko senar baten eta alegiazko haur baten berriak ! ... Zer lana
 etzen ? ... erroiena ! ez dinagu ebatsia ukaren haren ondoriotasuna!
 Gabriela - Erran , haatik , gero lana ttipitu ginuela hari izkiriaturaz ~~hix~~
 hire senarra hilikako berria !
 Zelezta - Hala dun ; haren lana gutiago !
 Gabriela - Noiz gertatu zen ?
 Zelezta - Zer , noiz gertatu zen ? ...
 Gabriela - Hiru alegiazko gizonaren hiltzea !
 Zelezta - Zer uste dun , ala , "kalendrier" bizi bat naizela , ni ?
 Gabriela - Hoi zunan ? ... Horrek badin ? ...
 Zelezta - Gripa españolak bezenbat urte , no !
 Gabriela - Zoin zozoa naizen ! ... hala-hala dun ! ... guk igorria hartarik
 hil zela !
 Zelezta - Bai eta geroztik gure Amerikanoek gehiago berri galdatzen delako
 Luixa maiteaz
 Gabriela - Hik erran ! ... eta zer zimardikak ez ditugu ibili hogoi urtez !
 Zelezta - Hori , bai , eta gure ottoren bitzikeria ... lehenik hora hilt-
 zezo ! ... ez baitzitaken hora bizirik geldi ?
 Gabriela - Eta tanta lehenik joan ?
 Zelezta - Bai , segur ! ... gizagaizo haren ez baiginituen hainbertzeta raino
 hertsatuko !

Gabriela - Ikusten duna , nola , alarguntsatuz geroz , guri laparra bezala lotua dagon ? ... gure tanta zahar ... bisaia hura ...

Zelezta - Nori galdatzen dun ? ... ez baita gehiago nehor harentzat Luixa baizik ... eta futxo ! Luixarik ez !

Gabriela - Asegarri ere badun ... beti Luixa

Zelezta - Bai eta tanta Ameriketarik heldu , bottiga haren gatik ! (xxxx , autre ton) Erran , Gabriela !

Gabriela - Zer dun ?

Zelezta - Hik errana jartzeko , jarririk nagon ...

Gabriela - Eta gero ?

Zelezta - Gero ? ... no ! ez gaituztela , bai , hire zaramatiko guziek biziki aintzina-arazten ! ...

Gabriela - Ago , ago !... orraitu gaitun denetaz !

Zelezta - Eta Luixa ?

Gabriela - Luixa ?

Zelezta - Ba , Luixa , ba ! nun dun / ... agertzeko ?

Gabriela - No ! ... bat moldatu behar !

Zelezta - Moldatu , moldatu ? ... ez dun deusetako astirik ! Luixa batek hemen behar liken . Letrak garbiki baitio :" Bihar sartzen niz untzian "; eta , letra jina , tanta ez baititake biziki urrun !

Gabriela - Zer egin ba ? ... Hau dun lastima !

Zelezta - Ikusten dun ? ... hiaurrek orai ez jakin norat itzulika ! Elhe , ba , xxxx elhe !... eta gero , ... tirrit ! ...

Gabriela - Ah ! ... badakin ... ase-arazten nun ! Örören buru ... ez dun batere Luixa enea ...

Zelezta - Oh ! barkatu !... Luixa ... bienna ... bienna !

Gabriela - Ago !... zerbait heldu zautan gogorat !

Zelezta (joyeuse) - Heia , heia !... erran laster !

Gabriela - Huna ! ... nik ... ez !... hik ... Bainan ... horrek ere ... ez din molderik !

Zelezta - Bon , maitea ! Hi , hortan geldi ? ... Galdegin bagineza Mme Potinier auzoari ? ...

Gabriela - Galda ... zer ?

Zelezta - Bere alaba , prestuz ...

Gabriela - Ez , ez , ez !... Zozotzen ari haiz ... Mme Potinier ezar gure sekretuan ? hunek gero denak salatzeko Melle Mihiluze kalakari handiari ? ... hunek heda dezan berria herri guzian ? ... eta gu bihar hola denen aho-mihitam ? ... Ez , ez , ez !

Zelezta - Ni , bixtatik banoan !

Gabriela - Banoan , banoan ...! beti solas bera dun hirekin !... ez dakin bertzerik erraiteko ?

Franxixka (entrant) - Anderia !

Gabriela - Eman bakea , hik ! Ez dun aditu sukaldean egoiteko ?

Frantxixka - Nola ... bainan , anderia ...

Zelezta - Anderia ... zoin ? Ez gaitun biga hemen ?

Fantxixka - Anderia ... depexa ! (elle le tend)

Zelezta (se précipitant) - Depexa !

Gabriela (meme jeu) - Depexa !... (toutes deux lui arrachent le télégramme des doigts)

Zelezta - Depexa ba ... eta zozo hunek ez erraiten (toutes deux ensemble ouvrent fébrilement le télégramme)

Gabriela - Laster .. irakur ! ... (a la bonne) Habil hortik , hi !... eta zalu !

Fratxixka (sortant) - Ez dut dudarik ... berri on bat dukezue hortan (elle sort)

Gabriela (lisant) - Arriverai demain matin , train 10 h 57 - Marieder " Horra !
 Zelezta (s'effondrant sur une chaise) - Bihar !... bihar goizean !... Holakorik ... oraino !
 Gabriela - Oh !... hau dun izigarrikeria !... Eta hola ezin egon !... zer-bait asmatu behar !... berantegi , berriz , Luixa hila dela erraiteko ...
 Zelezta - Zonbait egunentzat kanpoan dela ?
 Gabriela - Kanorerik ez din horrek ... gero bardin agertu behar ... No ! hoberena dun tantaren ondoriotasunari adio erraitea ! ...
 Zelezta - Hori jalitzen dautana orai ... Milesker ! Ez badun deus hoberik , nik berriz ere erranen daunat behar dugula mintzatu Mme Potinier eta hari alaba prestamuz ...
 Gabriela - Bainan , ezetz , ezetz , Zelezta !... hori baine lehen zernahi !...
 Zelezta - Goazen beraz hemendik ! Bego neskatoa bera !
 Gabriela (un cri) - Oh !...
 Zelezta - Aldixartzerat hoa ?
 Gabriela - Oh ! zoin zoroak giren !
 Zelezta - Zer derasan ?
 Gabriela - Zoin zoroak giren , gaixoa !... ez ote dugu hor Frantxixka ?
 Zelezta - Frantxixka ? ... Badun burutik ?
 Gabriela - Bai , Frantxixka ! horra gure Luixa !
 Zelezta - Nexka eskalapoi hori ene alaba ? ... Ni horren ama ? No ! gora naukan !
 Gabriela - Badakin ? Ez bada hautatzekorik , ahal dena hartzen baita !
 Zelezta - Bainan , konpreni zan ba ! Zer nahi dun egin nexka okilo horrekin
 Gabriela - Alo ! alo ! ... ez baitugu denbora galtzekorik , has giten orai beretik horri ahal ditugunen erakasten ! ... Nahi dun ?
 Zelezta - Indar baten egitea hobe ... ene ondoriotasuna galtzea baino ?... Alta ! ...
 Gabriela (appelant) - Frantxixka !
 Frantxixka (entrant) - Oihu egin duzu , anderia ?
 Zelezta - Oh !... beha zan , ba , trastu horri !
 Gabriela - Aski ! ... Kanbiaraziko dinagu (à la bonne). Bai , ene haurra , hurbil hakit !
 Frantxixka (etonnée) - Ni ... anderia ?
 Gabriela (très aimable , avançant une chaise au milieu de la salle) - Jar hadi , ene maitea ! (Frantxixka hésite)
 Zelezta (très aimable , encourageant du geste la bonne) - Bai , bai , jar , jar . (La bonne s'assied ; Gabriela et Zelezta prennent une chaise s'installent à côté d'elle , une de chaque côté . La bonne , très inquiète , regarde tantôt Zelezta , tantôt Gabriela , en ayant l'air de se demander ce que signifie ce manège)
 Frantxixka - Zer ggin gogo dautazue ?
 Zelezta - Ez izi !... gaixo Frantxixka ...
 Gabriela - Beha , Frantxixka ! Nahi duna izan gixakoa , bainan ... biziki gixakea ?
 Zelezta - Eta guri laguntza handi bat egin ?
 Frantxixka - Segurki , anderia
 Gabriela - Hola ! hola !... Hartze ona dun ?
 Frantxixka - Ez dakit , nik , anderia .
 Zelezta - Bai , bai , hartze arras ona .
 Frantxixka - Ah !(à chaque phrase elle se tourne du côté de celle qui lui parle)
 Gabriela - Guri atxikia hiz !
 Frantxixka - Ah !

Zelezta - Jeinutsua
Frantxixka - Ah !
Gabriela - Ernea ...
Zelezta - Gochoa ...
Gabriela - Molde pollitekoa ...
Zelezta - Aingeruño bat ...
Frantxixka - Ez duzue , araiz , nitaz ...
Gabriela - Batere ... hola hitugu jujatzen
Zelezta - Ez gaitun sinesten ?
Frantxixka - Bai , bai ; bainan , ez bainuen nik uste orai artine hoinbert-
ze banintzela ... Zer iguritkatzen duzue nitarik ?
Zelezta - Huna ! ez naun gehiago anderia deituko
Frantxixka - Ah ! beraz , Zelezta ?
Zelezta - Ez ; erranen dautan : ama .
Frantxixka (se levant suffoquée) - Ama ?
Gabriela - Ago jarririk , ene poxia ! (Frantxixka s'assied , de moins en
moins rassurée) - Horri erzmanen dion ama ; eta eni , tanta .
Frantxixka (se levant) - Ni , banoa ...
Zelezta (la faisant asseoir) - Ez , ez ! Beha , erreksi konprenituko dun .
Lehenik , kontu huni ; hire izena ez dun gehiago Frantxixka .
Frantxixka (ahurie) - Ez deitzen Frantxixka ?
Gabriela - Ez ; egun hasirik , deituko hiz Luixa . (Elle éclate en sanglots
- Zer dun , ba ? ...
Frantxixka (pleurant) - Zer eginen daut amak , erraiten badiot ez naizela
haren alaba ?
Zelezta - Ez holaka ! ;.. haren alaba hiz !
Frantxixka - Eta erran dautazu ezetz ?
Gabriela - Egun hautan aski dun orroitzea Luixa haizela
Frantxixka - Ah ! haniz orai , josteta berri bat nahi dautazze erakatsi
Zelezta - Ez , Frantxixka
Gabriela - Erron Luixa
Zelezta - Hala dun . Beha , Luixa ; ez gitun jostatzeko ari . Gauza seriosa
dun ; hain seriosa nun , ukamen baititun ehun libera , nahi balin-
badun ongi orroitu zonbeit egunez Luixa haizela
Frantxixka - ehun libera ? Zaude !... ez da guti ! ... Bai , bai , nahi
dut Luixa izan
Gabriela - Hala izanen hiz , tanta hemen deno
Frantxixka - Zoin tanta ?
Gabriela - Hire tanta Marieder
Frantxixka - Nik , bertze tanta bat !
Zelezta - So egizan eni , Luixa . Gure tanta hire tanta dun orai , hiene
alaba haizelaketz , jadanik aditu dunan bezala .
~~XXXXXXXXXXXXXX~~
~~XXXXXXXXXXXXXX~~
Gabriela - Hunen alaba eta ene iloba
Frantxixka - Ene jendekia handitu bepetan !
Zelezta - Hau ere , ahantzi gabe ; "no" erranen daukun
Frantxixka - Oh ! ez naiz sekulan menturatuko !
Zelezta - Ah ! hori ba ; hala erran behar dun
Frantxixka - Ongi da , anderia
Zelezta - Ama behar dautan erran
Frantxixka - Ama eta no ; ama ~~XXXXXXXX~~ erranen daunat
Gabriela - Eni , tanta eta no , amari bezala
Frantxixka - Tanta eta no ; tanta erranen daunat
Zelezta - Egunetik goiti , ehaiz gure neskatoa
Frantxixka - Ez naizela zuen neskatoa ?

Gabriela - Orai , autre ; et a badakin ez dela gauza bera izaita autre
eta neskato !

Frantxixka - Ah ! segur !

~~Frantxixka~~ Zelezta - Horra zertako behar diren hartu autre moldeak ; eta , ez baitugu
denborarik galtzeko , orai beretik hasiko gaitun hire anderetzen

Gabriela - Eta zer anderia ez baitugu ezarriko ?

Frantxixka - Ez daut kalte eginen ?

Zelezta - Oxoa ! hobeki izanen , bai !

Gabriela - Ukanen dun arropa bat azken modakoa

Frantxixka (extasiée) - Zer ! ... baia ? ...

Zelezta - Oihetako finak

Gabriela - Galtzerdi fin-finak

Zelezta - Xapel bat pollita baino pôllitagoa

Frantxixka (de plus en plus contente) - Bazinakite zonbat loriatua nizan !

Eta , noizko hoik oro ?

Gabriela - Orai berean ; bagoazin hoien eroesterat

Frantxixka - Eta gauza eder hoik , betikotz ene ?

Zelezta - Betikotz hire !

Gabriela - Orai , goazen , Zelezta (elles sortent)

Frantxixka (seule) - Hau , haatik , mirakulua da . Ez gehiago sehi !...
bepetan autre , autre haundi ! Ez ahal naiz sobera tonto izanen

zaramatikeria hoitan guzietan ? Zelezta ene ama omen da ? Hauk bitxi-
keria ! Gabriela , ene tanta ; bertze delakoa , hura ere ene tanta ,

eta ni , Luixa . Ene amak hoiek balazki p erho laiteke ! (on sonne)
Bon ! Norbeit hor oraino ! (s'avançant vers la porte , puis s'arrê-
tant) Bainan ... orai niz pollita ! nor da hemen sehia ? ... Ni ? ...

ez ! ... errana dautate ez naizela gehiago hala ... Bizkitartean...
(regardant ses habits) sehi bat bezala emana niz oraino !... Aloba !

banoa atearen idekitzerat aldi huntan ; bainan ... azken aldikotzat !
Ezen , avec emphase) ez dut ahantzi behar oraitik goiti an-de-re
naizela ! eta ez hala hulako an-de-re !

Rideau

Acte II

(Au lever du rideau , Gabriela , seule en scène , achève de mettre en
ordre la salle à manger . Elle range un bibelot , en déplace un autre ...)

Gabriela - Jainko ona ! bada bai , hau , zerbait ! (regardant sa montre)
Bisiaaren bisaria !... hamarrak et'erdia , buru galgarri da ! Eta tanta
hemen izanen hamarrak et-erdietarik laster !! (elle crie) Luixa !
(pas de réponse) Luixa ! Luixa ! nun hiz , ba ! ... ez naun aditzen?
Lehengo Frantxixka ! ...

Frantxixka (sans paraître) - Heldu !... zer da ?

Gabriela - Ahiza ?

Frantxixka - Berehala , berehala !

Gabriela - Hantzia duna tenora ? Erna ! erna !

Frantxixka - Ernatzen niz , eta nola !

Gabriela - Oh ! oh !... ez da helduko aldatzerat aski goiz ! "z nagoke larru
aren barnean !... Ro ongi dituda hemen ? ... Ederki !

Frantxixka (la voix se rapproche) - Heldu ! heldu !

Frantxixka entre , jupe courte , cordage clair . Sautoir , bagues , etc...

Peignée à la mode . Naturellement , elle a gardé sous ces vêtements
où elle est mal à l'aise , son air godiche qui semble encore plus

prononcé - Son corsage n'est pas boutonné - car il se boutonne dans le dos - et elle fait des efforts désespérés pour y parvenir)

Frantxixka - Ez nitake ba hel ; lagundu behar nu ...

Gabriela - Hauxe da trastua +

Frantxixka = Lagundu behar nuzu

Gabriela - Erradatan ba no ! Hainbertze aldiz aditu dun no erraoteko eni !

Tanta beretxala hor , eta ez dakin noka mintzatzen ! Huts egin araziko dauzkigun oro ! (Frantxixka se met à pleurer bruyamment) Bon !
zer dun berriz orai ?

Frantxixka (sanglotant) - Erran dautazu oro huts egin-araziko ditudala !
Be ... be... beraz ... huts ...

Gabriela - =Ez ale , ez ! Haugi hunat ! (elle la boutonne) Ez dun ba neke
Andere Zelezta ez dun gehiago hala , bainan Mme Dupommeau , eta hoi
hire ama .

Frantxixka - Bai , ene ama da

Gabriela - Beraz erranen dion ama , beti

Frantxixka - Bai , bai , anderia .

Gabriela - Erradatan tanta ! ehun aldi aditua dun

Frantxixka - Bai , anderia , bai

Gabriela - Beriz ere ? Tanta , tanta ! Otoi , kasu egizan . Ni hire tanta
maitea nun !

Frantxixka - Bai , tanta

Gabriela - Hola ! noizbeit bederen . Beha zadan ; ni tanta , Ameriketako
tanta : bahiza ?

Frantxixka - Orai , ba . Ama , tanta eta bertze tanta

Gabriela - Hola , hola , maitea !

Frantxixka - Eta gero dener no erran behar

Gabriela - Ez , ez , Zelezta eta eni , no

Frantxixka - Bertzeari zu ... eta tanta

Gabriela - Hari , zu ... eta ... ene tanta maitea

Frantxixka - Beraz , ama , tanta eta ene tanta maitea . Oh ! adakitzten ari
nun ! Nola tinkatzen ...

Gabriela - Zerk tinkatzen ?

Frantxixka - Hauk denek ... egosten !

Gabriela - Jarriko hiz , hartuko dun ! Egoadi xuxen

Frantxixka - Holaxet ?

Gabriela - Ez hoinbertze ! iduri jats gider bat iretsia !

Frantxixka - Beraz ... holaxet ?

Gabriela - Boooo ! ... funtsian ! Haugi , begitarrea molda .

Frantxixka (craintive) - Zer eginen dautazu hoz ?

Gabriela - No ... ba !

Frantxixka - Zer ? ... no

Gabriela - No erraiteko , eta ez ... zu !

Frantxixka - Ah ! bai . Zer eginen dautan begitaranean ?

Gabriela - Haugi hunat ... ikusiko dun (poudre , etc...)

Frantxixka - Hum ! ... zer usain ona !

Gabriela - Begi azpiak beltxa ... ezpainak ... gorri (à Frantxixka qui
rit bêtement) Zer dun , irriz ?

Frantxixka - Alako bat ... egiten daut !

Gabriela - Egoadi , ba , geldirik , alo !

Frantxixka - Zer da hau ? ... sukratua ?

Gabriela - Oh ! bainan ... ezpainak ez milika !(lui tendant une glace)
Meia ! beha ... orai

Frantxixka - Oh ! ... zoin ederra nizan ! ... buketa bai iduri !... (se
regardant toujours) Ne lagunek ikus banindezate ? ebé !... zoin
jelos litazkeen !

s'est avancée et envoie une gifle formidable à Farntxixka qui crie) :
 Ai , ei , ai , ei ! ("abriela s'écrie) : Zozotu zare ? (Koxepa)
 Ama ; ama , ez jo mola ! (Frantxixka tombe sur une chaise et pleure
 bruyamment , la tête dans ses bras)

Maria - Atxikan hori ! haizen bezalakoa ! Eta oraino aitarena ez daunat
 emaiten !

Gabriela - Bainan , badakizu zer ari zaren ?

Maria - Badakitanez ? ... Zuk gaztiatu daukuzularik horren bila jiteko ,
 errana nuenene senarrari : " ikusten duk esku hau , Pedro ? gure
 alabaren muturrak sendituko dik , eia esku hau pisua ala arina den !" Hitz
 hori dut atxiki (à Frantxixka) . Ez din , ez din balio marru-
 maz aritzea , ez dun merezitua baizik ! Bil , hortik hire puskak , eta
 jarraik niri ! Ez bahaiz on sehigoako , etxikiren hitugu artzain ! Ez
 ditun ero ikusiak !

Frantxixka pleurant - Ez dut hemendik jali nahi ...

Maria - Hoi , bertzerik dun !

Koxepa - Etzazula joka ibil , ama .

Maria - Ixil !... hi ; eta ez hola zurrufa !

Gabriela (veillant plus que jamais à la fenêtre) - Erran behar dautzut ,
 gure letraz geroz gertatu zaukun ... ba , peeseria batek kanbia-arazi
 daku gure orduko xedea . Frantxixkak egin du ...

Maria - Bertze zerbait oraino ?

Gabriela - Egin du biziki hobeki gure zerbitzua ; elgar aditzen dugu arras
 ongi eta atxikitzen dugu , hilabete-saria emendaturik (à Frantxixka)
 Ez dea hala , ene haurra ?

Frantxixka (toujours pleurant) - Bai , ene tanta

Maria - Zer da mintza-molde hoi ? Bertzenaz ere ohartua nun ... Haugi hunat
 hurbilago ... (Frantxixka se lève lentement , sans montrer son visa-
 ge) Zer ditun girgilleria hoik ? Eta hauxe da zaia sehi batentzat .
 Beha Koxepari ! Hi bezala dun hoi ? ... Hum ! ...

Gabriela(qui s'impatiente) - Tzaitela sar gauza hoietan !

Maria - So egizu , andre , ez dautzut deusik galdatzen (à Frantxixka)
 Hik , Frantxixka , ager begitardea eta beha nari ! Ehait joko , bainan
 erradatan zer diren molde hoik . (Frantxixka découvre un visage tout
 madulé de poudre de riz et de fard que les larmes ont délayés)
 Jaungeikoa ! ... Erran , ez gaitun ihautirian ? nik uste segurik...
 Irina mateletan ? Eta , ile-molde hoi , zer da ? Ah !... zerbait
 badun hor !... Ongi egin baitut , hunat etortzea !

Gabriela - Emaztekia , sinets nezazu ; behar gabe jauzten zira . Ez da deus
 hor , behar ez denik

Maria - Ez eni erran ; zerbait bada hor !

Gabriela - Oro konprenituko dituzu , aditu-eta . Bainan orai , ez dut ...
 (regardant sa montre) Adanik hamekak hamar guti ... Oh ! ez bide
 dire urrun !

Maria - Nik , behar dut jakin ! Eta .. nor da , ez urrun ?

Frantxixka - Ne tanta Ameriketakoa

Maria - Hirè tanta Ameriketakoa ?

Koxepa - Nor da hura , ama ?

Frantxixka - Ene tanta Marieder

Maria - Hirè tanta Marieder ?

Gabriela - Bai , alo ... Bertzenaz ere , etzauzu deus joan !

Maria - Nola ? Ez deus joan ? Errazu ... ene alabak badu tanta bat nik
 sekulan ikusi , sekulan ezagutu ez dudana , eta etzautala deus joan ?

Gabriela - Ez ... deus ! Oh ! la ! la ! hauk izigarrikeria ! Ez gira huntar-
 rik jaliko !... Beha , Luixa , hire amari emazkion xehetasunak ;
 hobe dinagu

Frantxixka - Bai , tanta

Maria - Luixa ? ... Nor da Luixa ... Frantxixka ? Nork behar zaituzte konprenitu ?

Gabriela - "uk , errexki .(à Frantxixka) Bainan erna ! eman xehetasunak amari, erne-ernea , denbora baitoa ! (elle reste à la fenêtre , regardant au dehors)
Frantxixka (entourée de sa mère et de sa soeur),- Huna ! Heldu da Ameriketarik andre aberats bat , ene etxeko-andre Gabrielaren eta Zelez-taren tanta .

Gabriela - Hola!... ongi ! ...

Frantxixka - Goiz hantan etorriko da , haren bila joana den Andre Zelezta-rekin . Eta nola harek uste baitu Zelezta ezkondua dela , erran behar zaio baietz .

Maria = Zerentzat?

Frantxixka - zeren eta ... zeren eta ...

Gabriela - Zeren eta atsegabe bailuke

Frantxixka - Horra !... Erran behar zaio Mme Dupommeau dela

Maria (à Koxepa) - Ez hola zurrufla !

Frantxixka - Zikina ! ez hola zurrufla ! Beraz , erran behar de Mme Dupom-
meau dela . Eta nola heldu den tantak uste baitu Zeleztak alaba bat
baduela , eta ez alabarik izanki Zeleztak , ni naiz haren alaba .
Horra . guzia .

Maria - Hi . haren alaba ?... ez duenaz deroz ?

Gabriela - Horren gatik ... sinets-arazi behar zaio baduela

Maria - Zertako , sinets-arazi ?

Frantxixa - Osoki nahi baitu , bat ukana dezan . Eta haren alaba Luixa , ni
naiz . Eta huna . ni . hortako ederki emana ! Konpreni ?

Maria - Konprenitzen? ... fitsik! (à Koxepa) Eta, hik?

Koxepa - Ez eta , nik ere .

Frantxixka - aietz ... baietz ... Ikusiko duzu . Ni naiz andere Zelezta
alaba ; andere Zelezta da Mme Dupommeau ; Mme Dupommeau da Andere
Gabrielaren ahizpa ; beraz , ni , andre Gabrielaren iloba ; hortako
erraiten diet tanta . Eta , ameriketarik heldu dena da ... da ...

Gabriela - Gure tanta ...

Frantxixka - Bai , bai ... andre Zeleztaren eta andre Gabrielaren tanta ;
eta orduan , nik erraiten diot ene tanta maitea . Bazira , orai ?

Maria - Gisa hortan , zonbat ama eta tanta ditun ?

Frantxixka - Ah ! hoí , ez dakit !

Maria - Eta ni , hoitan guzietan , zer naiz ?

Gabriela - Bainan , konpreni zazu ba , etzare hoieta barne. Gauza hoik asmatuak ditugu zonbait egunentzat , gure tantari atsegin egiteko . Gero tanta joan eta zure alaba izanen da . lehen bezala . Frantxixka

Gero , tanta joan eta, zure alaba Izañen da
Maria - Nahiko duzun bezenbat ! ... bida hor zerbait

Maria - Nani duzun bezenbat !... bida hor zerbait
Gabriela - Sinetsazu bada , emaztegia , ez dugula behar ez den deus egin
araziko Frantziyakari ?

Maria - Hala diozu ... bainan bada hor behar ez den zerbait ; eta nik ,
ez dut nahi holakorik

Gabriela = Eta heraz?

Maria = Ori ! joanen dut alaba nerekim

Gabriela - Zertako sare - emaztekia - hoin sinets-gogor ?

Maria - Zaudie !... sinets edo ez sinets ... iduri baitzaut baduzu
tentzat ene alabaren beharra . utzikoa dautzut : bainan ...

Gabriela - Zer . bainan ? ... Mintza zaite garbiki

Maria - Ikusteko zer ari den , hemen gelditzten niz

Gabriela - Hemen , zu , gelditzen ?

Maria - Bai , Koxeparekin !... Har , edo utz !...

Koxepa - Nik , ez dut hemen egon nahi !

Maria - Hi , ago ixilik . Hiruak egon , edo hiruak joan

Frantxixka - Alta , ni ere egoitekoa naiz !

Maria - Ez daunat hiri deus galdatzen ! (à Gabriela) Bai edo ez ...
zer diozu ?

Gabriela - Ah ! la , la , hau bertzen gainerat ! Zer egin ? Beraz , azken
hitza , egon nahi duzuela ?

Koxepa - Nik , ez !

Maria - Nahi duna ! ... (a Gabriela) Hiruak , hemen

Gabriela - Egina da . Hobeki baizik ez da izanen (regardant sa montre)

Oh ! ... hamekak ! (à Frantxixka) Hik , leihoa zaint !(pendant
toute la scène , elle regarde dehors) (à Maria) Kontu , emazteki
ona . Frantxixka , orai , andre Luixa delakotz , sehirik gabe naiz.
Bainan , elgar aditzen ahal dugu

Maria - Ez dut bertzerik galdatzen , nik

Gabriela - Ongi . Beraz , tanta Marieder hemen deno , Koxepa gure sehi

Koxepa - Ni ez naiz sehi egon nahi !

Frantxixka - Erran baietz , zozoa !

Maria - Zomat emanen diozu ?

Gabriela - Huna ; xarkeriarik gabe , bost libera egunean

Maria - eguneko , bost libera ? ... egina da

Koxepa - Nik , ez dut nahi egon ! ...

Maria - Erraiteaz geroz egina dela , egina dun . Eta gero , ez hola zurr-
fia , gohaindigarria

Gabriela - Erra , beraz ! Frantxixkak emanen diozka soinekoak Koxepari , eta
erranen bi hitzez zer egin (regardant sa montre) Ai , ei , ai ! hame-
kak eta bortz ! Bixi-bixia , ene haurrak !

Frantxixka - Bai , tanta , bai ! (elle sort avec Koxepa et Gabriela va
à la fenêtre).

Maria - Ikusten duzu , ore ongi joaki ? Koxepak badu bere lana . Ta ni ?
zer daukazu neretzat ?

Gabriela - Zu ... zu ... hala da . Zaude ... Bagira : zu , bereziki , tantak
galdañtu en egiiteko

Maria - Zenbat emanen dautazu ?

Gabriela - Zuri ... alo ... alabari bezala , bost libera egunean

Maria - Andrea , gauzak ederki doazi

Gabriela - Huna , beraz , zertan garen : Frantxixka izanen da andere Luixa;
Koxepa , sehia ; Gero erranen duzu : niri , Anderia ; ene ahizpari,
Madame ; eta Frantxixkari , andere Luixa . Eta ez ahantz Luixa dela
ene iloba ; ene ahizpa , haren ama ; Marieder , haren tanta . Oro
gogoan dituzu orai ?

Maria (ahurie) - Eta ... eta ...

Gabriela - Ongi da . Nik hemen erranak , adi-amaz Koxepari (montrant le
parapluie et le panier) Horiek , sukalderat . Eta orai ukamen duzu
daantel xuri bat soinean emaiteko (regardant sa montre) Oh ! jada-
nik hamekak eta hamar ! Zer ari zauzkit bertze biak hor gaindi ?
(elle sort)

Maria (seule) - Norat etorria naiz ni hunat ? Oro misterio dira-eta ,
hemen ! Satan zaharrak berak ez liro deus ikus itzulika hautan güzie-
tan . Aitor dut jende handiak gu bezalako menditar gaizoak baino
gehiagokoak direla . Jakitate gaitza badukete , holakoetan burua ez
galtzeño ! Nik galduko ote dut buruz ? Ba ...oro segurik galduko ez
ditut ! Diru ederra behar dut irabazi egun laburrez ene alabarekin .
Bainan , xo ! ... norbeit heldu da ...

("abriela entre avec Koxepa et Frantxixka . Koxepa , revêtue du tablier blanc de Frantxixka , de son corsage et de sa jupe , est tout à fait ridicule)

Gabriela (tendant un tablier blanc à Maria) - Emazu hau soinean eta horrekin ederki zitazke (à Frantxixka) Hik , Luixa , leihotik so egin . (Tandis que Luixa va à la fenêtre , elle aide Maria à mettre son tablier) Koxepari ohartu zare ? ... zoin pollik den ?

Maria - Ah ! bai , hoi ongi da . Bainan bertzea , iduri ihautiristatua , bere ilhe kurumilkatuekin ??

Gabriela (montrant encore le panier et le parapluie) - Hoik , orai sukaldarat) & Maria prend le panier , Koxepa le parapluie et toutes deux se dirigent vers la chambre)

Frantxixka - Ez horrat , ama ; sukaldea , han da !

Gabriela - Dohakabea , ez zozula ama erran ! ... Langile bat da hoi orai ! (à Maria) Zoin dut zure izena ?

Maria - Ez dakit , anderia , zoin nahi duzun ? Baditut zazpi : Maria-Isabela -Rosa-Concepcion-Carmen-Lolita-Felicidad .

Gabriela - Nundik jaliak dituzu horiek oro ? Ta , ta , ta ! Nola deitzen zaituzte zure herrian ?

Maria - Denek erraiten dautate Maria

Gabriela - Bon ... doala hemen ere Maria . Haurrak , hemen amari erranen duzue , ez ama , bainan Maria

Koxepa - Ni , nahasiko naiz hanbat izen kanbiorekin ; beharko ditut zonbeit keropile eginene sakelakoari , denetaz orroitzeko

Frantxixka (vivement) - Andere Gabriela ! andere abriela !

Gabriela - Xoriburu ! errazu , ba , tanta !

Frantxixka - Tanta , tanta ! ... Hemen ! ... hemen !

Gabriela (se précipitant à la fenêtre) - Heiek dira ! ... higi hortik !

Frantxixka (affolée) - Jainko ona ! Heiek ! ... heiek ! ...

"abriela - Eta gero ? ... zer dun holakatzeko ?

Frantxixka (défaillant) - Oh ! oro itzulika ari ! ... Heiek ! heiek ! ... Zintzurra ... idor ... idorra ! hesten ... ari !

Maria eta Koxepa - Hi , hemengoa , holakatua ! Gu... zer egin behar gare , beraz ?

Gabriela - Alon ! alon ! ... ez burua gal !(à Frantxixka) Hi , ago enekin Eta orroit , sarri erraiteko : Agure ene tanta maitea

Frantxixka - Bai , bai , Ah ! ikara batek hartzen nau !

Gabriela (à Maria) - u sukaldarat , abian ! Koxeparekin ...

Maria - Haugi ba , Koxepa

Gabriela - Alo , ba , Luixa ! Har hortik begitarte arrai bat ! Haugi , nik planatan ezar ! (elle lui arrange robe , cheveux)

Frantxixka - Tanta , burua ... pisu-pisua dinat !

Maria (à Koxepa) - Oh ! odol guzia itzulikatua diken !

Gabriela - Egoadi , ba , xuxenago !

Frantxixka - Juandura ... batzu ... nausituak ...

Koxepa (à sa mère) - Ama , zer dabila hemeh ?

Maria - Ez dun hire egitekoa , hoi ! Jende handien moldeak , no ? Andre hunen ahizparen tantaren ilobaren alaba , lehengo Frantxixka , oraiko Luixa ene alaba eta hire ahizpa . Horra , zer dabilan hemen !

Koxepa - Iztuita naiz nola ? Sorginak badira hemen

Frantxixka - Oh ! nik , huntarik joan behar dut (on sonne)

Gabriela - Hor baitira , habil laster , Luixa , idekitzerat

Frantxixka (tombant à la renverse) - Ai ! ... ama ! ... ama !

Maria (se précipitant pour la retenir) - Oh ! oh ! ... Jainko maitea !... alditxartzera doa !

Frantxixka - Nun naiz , ni , ama ? (elle tombe sur une chaise)

Gabriela (se précipitant) - Luixa ! Luixa ! (on sonne de nouveau)

Koxepa - Ama , badut beldur bat !

Gabriela - Bisaia ! Zozaste hortik sukalderat !

Maria (indignée) - Errazu ?... sukalderat ?... ene haurra hiltzen ari eta ? (à Frantxixka) Frantxixka , ale ? !

Koxepa - Frantxixka gaixoa , beha zan , ni nun ! Beha zadan , ba ? otoi... (on sonne encore)

Gabriela - Ez denetz harrigarri ? Luixa ! Luixa ! ... (Pendant ce temps Maria et Koxepa affolées tapent dans les mains de Frantxixka , en disant : " Frantxixka ! gaixo Frantxixka ! ")

Gabriela - Bainan , zozaste ba , hemendik !

Maria eta Koxepa (ensemble) - Ez ! hau ene alaba da ! Ez , hau ene ahizpa da !

Gabriela (entendant encore sonner) - Oh !... azkenean ?!... Nik ez diot bertzerik (elle se précipite dehors) (on entend alors les voix de Marieder et de Zelezta) Nun egon haiz hoinbertze denbora ? ... Agur , maitea !... Nun da Luixa ? ... Nun da Luixa ? ...

Mariederren boza - Zer gertatzen da ?

Zeleztaren boza - Oh ! ... Izi arazten naun ?!

Gabrielaren boza - Bazinakite ! ... Oh ! Bazinaki , tanta ! Luixa ... Luixa ... hor ...

Mariederren eta Gabrielaren bozak - Mintza ... mintza , laster !... Luixak zer du ? (les trois entrent)

Gabriela (entrant) - Huna ! ... beha zazue !...

Zelezta (entrant) - Zer dira emazteki hauk hemen ?

Gabriela (lui faisant signe) - Xo ! sarri jakinen dun !

Marieder (entrant et voyant Luixa étendue , lève les bras au ciel et laisse tomber de la main le sac de voyage) - Zerua !... Luixa ... hila ? ... Ai !... ai !... hatsa ... hatsa !... (elle tombe , soutenue par Gabriela et Zelezta)

(Pendant que le rideau tombe , on entend les quatre femmes s'agiter et crier : " Tanta !... tanta ... Frantxixka ! ... Luixa !... ")

Rideau

Acte III

(C'est la fin du déjeuner . Ces dames achèvent le dessert . Marieder est au milieu , avec Luixa à sa droite et Zelezta à sa gauche . Gabriela est à droite de Luixa . Au lever du rideau , Koxepa , venant prendre une bouteille vide sur la table , va à la cuisine)

Zelezta - Tanta ona , atsegabe hoien guzien ondotik , zer bazkari txarra hiri egin-arazteko !

Gabriela - Bai , txarra ; ahalge ere bagaitun

Marieder - Nahizue ixildu ? Bazkari bat ona , hoberenetarik egin dugu-eta ! (à Luixa) Eza , ene poxia ? (silence) Etzaun hala iduri ?

Frantxixka - Ah ! ni naiz poxia ! Bai , bai , ene tanta maitea , gocoenerik .

Marieder - Gaixo poxia ! Nolakatu den ni jiteari ?

Gabriela - Alabainan , hoinbertze aipatua hintugun horrekin ! Eta hire hola bepetan etortzeak ezarri din ...

Zelezta - Ezarri din hoinbertzeta raino bertzelakaturik

Zekinez -

Gabriela - Bertzalde , ezagutu ere gabe , hain maite hinituen
Zelezta - Oh ! hori , bai , hain maite !

Marieder - Ne poxia , hain maite naun beraz ?

Frantxixka - Ongi maite , ene tanta maitea

Gabriela - Hain da amultsua ! hain ...

Zelezta - Hain amultsua , Luixa !

Marieder (à Luixa) + Ez dakin , nik ere zoin maite hautan ! Ene atsegina
azkenean Frantzian izaitea hoiekin , ene ilobekin ! Iduri zautan
mende bat badutala Ameriketarik jalirik . Zoin goxoki behar dutan
itagan ene bizia zuekin hiruekin ?

Frantxixka - Bai , ene tanta maitea , bai ; goxoki

Marieder - Hi , nahi hait ikusi beti zoriohean , zorionik handienaren erdi
Hiretzat , etzaitan deus sobera izanen ! Ene poxia , haugi besarka !
(elle l'embrasse) Xarmagarria da ! maitagarria ? ... (autre ton
de surprise) Oh ! ... zoin bitxi zautan ! Nik uste " blonda " hint-
zen !

Frantxixka - Ez dakit , ene tanta maitea !

Marieder (stupéfaite) - Ez dakinala ? Amets egin duta , bada , nik ?
Bainan , Zelezta , ez dautana beti hala erran ...

Zelezta - Bai , " blonda " zen , tanta , osoki " blonda "

Gabriela - Kolpez holakatu da

Marieder - Kolpez ? ez denez bitxi ! Haugi , ene poxia , berriz ere besar-
ka (elle l'embrasse)

Frantxixka - Bai , ene tanta maitea

Marieder - Nik uste hire ite zuen , Zelezta ?

Gabriela eta Zelezta - Ez , ez ! Oh ! ez ...

Zelezta - Dena aita iduria da

Marieder - Gaixo gizona !

Gabriela - Halako gizona !

Marieder - Zoin maite ahal huen , Luixa , hire aita Jakes ?

Frantxixka - Ez da Jakes , haren izena , Pedro ? (stupéfaction de Marieder
Gabriela et Zelezta toussent bruyamment)

Marieder - Pedro ? Pedro ? ... Jakesen izena Pedro ?

Gabriela - Huna , nola den hoi ...

Zelezta - Huna nola den . Luixa ttipi-ttipia zelarik , zer nahi egin diogu
erran-arazteko aita Jakes . Eta , bitxikeria , ez du erran ahal izan
Ja-kes ... idorregi hatzemaiten zukeen izen hori ?

Gabriela - Bai , idorregi , hala da ere (appuyant) Ja-kes

Zelezta + Zerbaiten murmurikatzen hasi zelarik , ez dakigu nola hortaratu
zen : aita Pe ... aita Pedro ... aita Pedro

Gabriela - Bai , ez dakigu nola , hortaratu da ?

Zelezta - Eroztik , beti eta , utzi dugu ! ala dun Luixa ?

Frantxixka - Bai , bai , ama

Marieder - Holakorik , oraino ? ... bitxi zautan

Zelezta - Luixa , behazan zer ari den Koxepa ? hunatekoan , kafea ekarriko
dun

Frantxixka - Bai , ama (elle sort)

Zelezta - Hain gaixto da , sehi berri bat !

Gabriela - Beharrik , Luixa ernea baita ?

Marieder - Oh ! paregabekoa da , ene Luixa ; bainan , iduri du ... nola
erranen dut ? ... halako beldur bat baduela ... Neskaton gazte bati ,
badoako segur holako beldurkubde poxi bat ? ... bainan halako bat
egiten daut ! ...

Gabriela - Ez baita egia bezalakorik , erranen daunat , tanta , zertarik
duen hoi : ukana duelakotz berrogoi egunetako sukarra

Marieder - Berrogoi egunetako sukarra ?
 Zelezta - Bai , eta nolakoa !
 Marieder - Noiz , bada , hoi ? ez duzue sekulan igorri
 Gabriela - Bi urte , aita hil baino lehen
 Zelezta - Eta gorde dinagu hi ez izi-arazteko ...
 Gabriela - Zer lazdura , oh ! ... ustez bazoan !
 Zelezta - Oraixtian , tanta , ez baitugu klartu ... Luixaren ilhen kanbi-
 atzea ? ... hortarik heldu zunan
 Gabriela - Gaixo hoi izana bertze munduko mugen hegi-hegian ! ...
 Marieder - Oh ! poxia ... zuek ez igorri , haatik !
 Zelezta - Ikusten dun ez ditekela izan hain , hain bipil
 Gabriela - ... eta bertze bat bezain alegera ?
 Zelezta - Bihotz minekin erranen daunat , bainan behar din uk an aski animo
 aitortzeko , zerbait gelditu zaion ...
 Marieder - Gai maite maitea ! ... artatu behar din horrek gain-gainetik !
 Zelezta - Sinesten ahal dun etzaukula deus sobera ?! ...
 Frantxixa - (entrant avec cafeti ère et sucrier) - Eman du ... eman du ...
 denbora bat Koxepak kafearen egiten ? ... Azkenean , huna ! ... ez
 baita goizegi (Gabriela sonne)
 Marieder - ne poxia , hobea duken , hik emanik
 Frantxixa - Ba ote , ene tanta maitea ? (à part) Zertako deitzen nau
 beti : ene poxia ?
 Marieder - Ah ! zer etxe-ko-andere geia haizen ?
 Frantxixa - Bai , ene tanta maitea ! (Gabriela sonne entore)
 Marieder (à part) - Arduraxko erraitean daut ene tanta maitea ? ... Hola
 manatua ôte den ! ... (Frantxixa continue à faire le service)
 Gabriela - (voyant entrer Koxepa:) -Joa nuen ba jadanik ?
 Koxepa - Bai , andre
 Gabriela - Zertako , beraz , ez etor berehala ?
 Koxepa - Laugarren aldiak baizik ez dut aditu
 Gabriela - Ah ! bon , bon ! Huts mahaina eta erran Mariari etor dadien
 hire laguntzerat
 Koxepa - Nori ? ... Mariari ? ...
 Frantxixa - Bitzia ! ... ez dakin nor den , Maria ?
 Koxepa (se souvenant tout à coup) - Ah ! hai , bai ! ... Banoan ! (elle
 dort)
 Marieder - Ene poxia , etzanala , otoi , no erran sehiari !
 Frantxixa - Bai , eta ... badakizu , hoi ezagutzen baitut ttipi-ttipi
 danik ... Zonbat asukre , ene tanta maitea ?
 (Koxepa et aria rentrent . Pendant cette sc ène , Kosepa et sa m ère , d ébar-
 rassant la table , vont et viennent de la salle à manger à la cuisine)
 Marieder - Zertako , mila sorgin , ari hait zu-ka ?
 Frantxixa (évasive) - Ba , hoi ! ...
 Gabriela - Ez duken errexki menturatzen no erraiterat
 Zelezta - Nahiago liken , ba , berak ere ! ... Ez deia hala , Luixa ?
 Frantxixa - Bai , ama
 Maria (se retournant brusquement) - Zer ?
 Zelezta - Ez kasurik egin , ez da fitsik
 Marieder - No erraitean dautan , ene urtxua ! ... Aditu ?
 Frantxixa - Zuri ere ?
 Marieder - Nolaz ? ... eni ere . Zer dun hoi : eni ere ?
 Frantxixa - Jadanik , aski ikusia naiz , no ezin ...
 Gabriela (vivement) - Bai , bai , ene haurra . Izigarrikeria ! (à Marie-
 der) Ikusi bahu , berrogoi egunetako su ...badakin nik erran hura...
 ez nahi no erran ! Batere , gero !

Zelezta - Eta , zonbat denboraz , ez nahi no erran ?
 Gabriela - Ez direnetz bitziak , su ... delakoaren ondorioak ?
 Marieder - Ba ;bitzi baino gehiago .(à Frantxixka) Beha , ene poxia .
 Erranen dautan no . Ni , hire tanta xaharra bainiz , hain urrunetik
 etorria ez bakarrik hire ezagutzeko eta besarkatzeko , bainan ere
 hi dohatsuenetarik egiteko . Huna ... egun hasirik , aberats hiz
 Koxepa (ahurie , à sa mère) - Oh ! aditu duna ?
 Frantxixka - Ni , aberats ?
 Marieder - ta , biziki aberats !
 Maria (à Koxepa) - Biziki aberats , oh !...
 Frantxixka - ainan , egiaski ?
 Marieder - Izan diteken egiaski-ena !
 Koxepa (même jeu) - Oh !... oooh !...
 Marieder - Ez dinatene azken egunaren aiduru egon nahi , hi , ebe aberats-
 tasunez goza-arazteko !
 Koxepa (même jeu) - Ho !... haren ondoriotasuna ...
 Maria (même jeu) - Ba , eletan joanen dun , ba ?
 Zelezta (protestant) - Alo , alo , ene tanta , hoi ez aipa !
 Gabriela (protestant) - Hire heriotzea ! nahi duna ez aipatu ? !
 Marieder - Utz nezazue hola egiterat . Azken ordu hartarat utz baneza lan
 hoi egiteko , zuen hiruen gutizien indarrek lasterrago ...
 Zelezta - Oh ! tanta , zer blasfemioa !
 Gabriela - Nolaz dion , ba , hoi ?
 Marieder - Bai , bai , denetan hola gertatzen baita , haatik ? ... Nork
 ere behar baitu ondoriotasuna , eta haren gostuko , emailea luzazegi
 bizitzen
 Frantxixka - Ah ! hoi ? ... egia !
 Marieder - Ikusten duzue ?
 Zelezta - Bainan , zozotu haiz , Luixa ? Beraz , hik , nahi dun hire tanta
 maitea hil dadien ?
 Frantxixka - Oh ! hori ez !... aberats naizenaz geroz , bardin zaut ,
 segur , tanta bizi ...
 Marieder - Haurra , xuxen mintzo haiz ! Bainan , ene poxia , nik hiri
 atseginten ... ordainez , hik niri ... ez dautan atseginten egin
 nahi ?
 Frantxixka - Bai , segur , ene tanta maitea
 Marieder - Biziki nekatu gabe , atseginten eginen dautan , no niri erranez ;
 bainan , beti , hein ?
 Frantxixka - Eta nik , hala erranen ...
 Maria (à Koxepa) - Badun zerbait , hor !
 Marieder - Ah ! eta ... Luixot , orai orraoitzen bainiz , hire amak ardura
 izkiriatu dautan musikari hauta haizela . Heia , zerbait ... xirri-
 bikarekin ?
 Maria - Zeeeer ?
 Frantxixka - Nik ? zerbait emah ... xirribikarekin ?
 Marieder - Eta bai ... ez dakin haren ibiltzen ?
 Frantxixka - Ez dut eskuetan atxiki ere , ene tanta maitea !
 Marieder - Bainan ... (Gabriela et Zelezta , se frappant le front , font
 à la tante des signes désespérés comme pour lui rappeler que Luixa
 a eu la typhoïde) Ah ! bai , bai ... ago ... bertze batena ninan
 gogoan (à part) Gaixo haurra ! (à Frantxixka) Banun , orai , hire
 amak , hire boz xaramela dautan aipatu ...
 Frantxixka - Ez dakinat , tanta ...
 Maria (intervenant carrément) - Ah ! hoi ... bai ! Hik badakin , eta
 ongikso ... kantatzen . Hoi , ez dezaken ukha ? (Emotion de Gabrie-
 la et Zelezta)
 Marieder - Boon ! guziek no Luixari ?
 Maria - Sobera zaitzu nik horri no erraitea ?

Marieder - Ez dezaket , ba , nik , hemen deus konpreni
 Zelezta - Errex dun ... aspaldian ezagutzen din !
 Marieder - Ez dautana hik erran , bi egun duela hunat ...
 Zelezta - Bai ... ; etorri gabe ere , ttipitik ezagutzen din
 Gabriela - TTipi-ttipitik !
 Maria - Bai , bai , ongi ttipia zelarik ...
 Gabriela - Erran nahi baita , hau etxekoa bezala dela
 Zelezta - Hoi eta bera
 Koxepa - Hoi eta bera
 Frantxixka - Hoi eta bera
 Maria - Hoi eta bera
 Marieder - Bien , bien , bien !... Ez bada hola ere , hola izan dadiela !
 Beraz , Luixa , zerbait kantatuko daukun ?
 Frantxixka - Ez baitakit zer , ez nola eman !
 Zelezta - Ez , egun hautan ez dun hain ...
 Maria - Hunek ? Bai , bai , eta ... errexki kantatuko . Has , hortik ,
 Frantxixka ! (Gabriela et Zelezta toussent bruyamment)
 Marieder (abasourdie) - Frant-xix-ka ?!...
 Zelezta - Hoi ... hoi ... hoi da hauien eskualdeko hizkuntza bat : are ,
 hortik , Frantxixka
 Gabriela - Bai , erran nahi balute bezala : hasten ahal haiz , alo ! Habil
 Frantxixka !
 Marieder - Bien ; beraz , habil , Frantxixka !
 Frantxixka - Menturatzten naiz : huna zerbait ederrik (elle annonce le
 titre d'une chanson :" Neure etxea "
 Koxepa - Ah ! hoi ... pollita dun ! Aman , eman ! (Frantxixka chante
 abominablement le premier couplet de cette chanson , qu'elle accom-
 pagne de gestes gauches et niais)
 Gabriela - Ikusten dun , tanta , ez dezakeela orai ?
 Zelezta - ez , ez da trenpuan , hurbiltzeko ere !
 Maria - Ez baitzautzue hoi ederra ?
 Koxepa - z du sekulan hoin ongi kantatu !
 Frantxixka - Ez deia ederki , hoi ?
 Marieder - Hiru amak egia zinan ene poxia ! Ez , ehaiz trenpuan . Bertzald
 batez emanen dun errexkiago . Haugi , nik besarka ! zoin maitagarria
 haizen ! (on entend sonner)
 Frantxixka - Norbeit atean ? (elle se dispose à aller ouvrir)
 Gabriela (vivement) - Joan bazinite , Koxepa , idekitzerat ?
 Koxepa - Bai andre .
 Gabriela - Ikuslier bat balinbada , sar-araz salonean
 Koxepa - Bai , andre . (elle sort)
 Zelezta (à Marieder) - Ez dun joan nahi hire gelarat , poxi bat deskant-
 xatzerat ? Ehaiz unatua ? ...
 Marieder - Jainko ona , unatua ? Loriatua nagon eta) Izaitekotz , zuek
 hala nahi duzelarik , joanen gaitun itzuli baten egiterat , aro
 eder huntaz baliatzeko ?
 Gabriela - Beha huni ! Zoin ernea ! Jadanik jali nahi ?
 Koxepa (entrant) - Jaun auzapezaren andrea da hor , bertze batekin .
 Diote eske dabiltzala eskola giristinoentzat . Salonean dira (elle
 sort)
 Marieder - Obra onetan partalier zarezte ? Ongi , hola . Ez dute , eiki !
 denek konprenitzen eskola giristinoa , berezikiago , zer gauza
 beharra den eta zonbatetarainokoa den horren baliostasuna !
 Gabriela - Hi hemne bakarrik orai ? Haugi gurekin
 Marieder - Ez , ez , zoazte deskantsuan

Zelezta - Éta , luze joanen den zerbait balinbadute ?

Marieder - Bardin munta din ; harrazue behar den astia , Luixa enekin dagoken

Frantxixka - Bai , eta gogotik , ene tanta maitea

Marieder - Hola , hola , ene poxia ! Hi , enekin (à Gabriela et Zelezta)
Zer nahi izanik , errosue jaun auzapezaren andre onari ene Luixak ez
dituela arranguran utziko ; ez , segur !

Frantxixka - Nik , ez arranguran utziko ?

Marieder - Hik , bai ; bainan , bego hori ene gain

Gabriela - Mezu ona dukegu hoi , hari egiteko

Zelezta - Berehala artino (elles sortent)

Marieder - Eh bien ! ene poxia , zer eginen dugu guk biek ?

Frantxixka - Nik , ez dakit

Marieder - Bitxi dun , arduraxko emaiten dautan arrapostu bera . Joan bagi-
nite paseatzerat ?

Frantxixka - Nahi dunan bezala , ene tanta maitea

Marieder - Hola , ene maitea (elle l'embrasse) Habil poxi bat orraztat-
zerat , ile hoiek barreatuxea baititun . Éta hunatekoan , har ene
xapela . Laket zeraun , hola ?

Frantxixka - Bai , segur , ongi laket

Marieder - Habil beraz apaintzerat . Eta gu jalitzean ikuslierrak hor
badire oraino , hire amari eta abrielari Mariaz erran-ataziko digun
kanpo horietan nun gitazken . Habil , gaixoa !

Frantxixka - Banoa , ene tanta maitea . (elle sort)

Marieder (à Maria) - Beha zazu , otoi , andre hoik badutenez jalitzeko
molderik ?

Maria - Bai , andre (elle sort)

Marieder (seule) Uf !... Jainko maitea ! Ez da goizegi ! Noizbeit bederen
bakarraik naiz ! Dutan ikus orai zertan naizen ? (elle réfléchit)
Norat eroria naiz ; ni , hunat ? Zer da bada etxe hau ? Ez diot ni-
hundik arabina ! ... Ene Luixa , osoki da maitagarria , bainan zoin
bitzia ! ... zoin bitzia !... Ez da batere amak bere letretan erakus-
ten zerautan bezalako . Delako sukarrak arras bertzelakatu daut haur
gaixoa ? ... bere aitaren izena ahanzterainokoan ! Eta , nun ditu ,
haur horrek , iloba hoiek ene emaitza ederreri esker emanak zaizkote-
lako bizi-molde ederrak ? ... Bi sehiak aldiz , hoin trebe ene Luixa-
rekin !... Eta gero ? Gabriela eta Zelezta , ez baitakite artetan
norat itzulika ? ez eta , askotan , eni zer ihardets ? ... Ikusi ere
ditut elgarri keinuka , begiz klinikaka ari ! Ez da hor haratik ez
hunatik , zerbait gordetzen dautate (elle réfléchit) Bai , zerbait
bada etxe huntan ezagutzen ez dudanik ! (d'un ton décidé) Alta ,
jakin behar dut , eta , jakinen dut nun zer dabilan !... Mariak baitu
gizagaizo aire bat ... horri zerbait jali-araz banezo !... Dugun ikus
! (appellant) Maria !

Marieder (à Maria qui entre) - Zeri ohartu zare ? Badute jalitzeko
molderik ?

Maria - Oraino segurik ez , andre

Marieder - Ahalgetua nago , ene emazteki maitea , zueiri hoinbertze lan
emaiterat etorririk

Maria - Ez hainbertzeta rainokorik , ez ...

Marieder - Eta ene iloba hoik errrotu dirade holako gastuen egiteko enetzat !
Bailio baitu ni bezalako atxo xahar batentzat ?

Maria - Huntarik (geste des doigts) baituzu ?

Marieder - Erran dautzute zerbait ?

Maria - Erran , ez ; bainan , hala iduritzen niri
 Marieder - Eta Luixak , zer zion nitaz ?
 Maria - Nork ? ... Luixak ? ...
 Marieder - Luixak , bai ! Bitxi da ; iduri duzue ilargitik jausten ari
 zaretela nik aipatzean Luixa , Luixa ene iloba !
 Maria - Ah ! bai ; oh ! Luixak ez daut deus erran
 Marieder - Gaixo haurrak ezagun du sukar handian iragan dela
 Maria (ahurie) - Zer sukar ?
 Marieder - Ez dautazu erran ttipitik ezagutu duzula ?
 Maria - Bai andre , bai
 Marieder - Badakizu , beraz , sukarra izan duela ?
 Maria - Hoi , haatik ! ... (comprenant tout à coup qu'elle a gaffé) - Ah
 zaude ... bai , bai ; hala da
 Marieder - ire espantitu bat hartu duzu , ba ?
 Maria - Badakizu , ez bainuen gogoan ...
 Marieder - Bai , zonbeit denbora aita hil aintzinean ?
 Maria - Pedro ? bainan , bizi da Pedro ! ...
 Marieder - Nor duzu Pedro ? horra bigarren aldia aditzen dudala izen hori
 Maria (se raccrochant) - Eta , bai Pedro ? Koxeparen aita ?
 Marieder - Alon ! bon ! ... ez dautzut aipatzen Koxepa badenetz ere ; mintzo
 naiz Luixaz !
 Maria (à part) - Hobe dut , naski , ixiltzea !
 Marieder - Nola ?
 Maria - Deusik ez , andre ; salbu , sukarra , Luixa , Pedro aipatzen
 baititutzu , nahasten naiz .
 Marieder - Aitortzen dautzut , ni , hunat geroz , nahasia nagola . Eta jakin
 behar zerbait garbitasun ? Ah ! zaude (appelant) Koxepa ? ...
 Koxepa (venant de la cuisine) - Oihu egin dautazu ?
 Marieder - Bai , ene haurra . Galdegin nahi nautzun heia aspaldian ezagut-
 zen zinuen Luixa ?
 Koxepa - ai , andre ...
 Marieder - Zer adinetan izan du berrogoi egunetako sukarra ?
 Koxepa - Berrogoi egunetako ... zer sukar ?
 Marieder - Ez du sekulan izatu sukarra ? "eia , orroit zaite ... aita hil
 aintzinean ...
 Koxepa - Bainan , bainan ... bizi daoraino ait... (voyant les signes déses-
 pérés de sa mère , elle n'achève pas : aita)
 Marieder (qui a surpris les gestes de sa mère de Koxepa) - "z , alo ,
 Maria , ez du balio . Hau erranen dautzut : ikusten baitut orai zer-
 bait badela segurki , nahi dut egia garbiki jakin . Eta nola zu ,
 Koxepa , gixakoa baitzare , zuk argituko nauzu . (a mère de Koxepa
 se pinçant les lèvres avec les doigts lui fait signe d'être muette .
 Marieder prend encore ce geste) Ah ! bon , arras ongi . Ez duzue
 nahi mintzatu ? ... ez ? ... (silence) Bien ... gauden hoal ... (elle
 va s'asseoir et fredonne un air , tandis que Koxepa et sa mère , debout
 à l'avant-scène , lui tournent le dos ... immobiles) Bitxi da , Koxepa
 Koxepa maitea . Gibeletik behatu eta , badakizu etzarela batere gaiz-
 ki ? ... batere , gero ! ... (sans bouger , Koxepa et sa mère commen-
 cent à échanger des regards étonnés , curieux , puis chargés de
 convoitise) Zoin ongi zintezken ... soineko ... modako batekin ,
 xapel pollit-pollit batekin ? ... Bainan , hoik oro hain kario dira !
 Ezin hurbilduak , funtsean ... Eta , bizkitartean , agradatzen zauz-
 kit , ene haurra , bai , agradatzen osoki ; eta , etzikitzuetan hain
 itsuski emana ikusi nahi . Ori , zer izanen da ... nihonik erosiko
 dauzkitzut !

Koxepa (n'y tenant plus , malgré les gestes de sa mère de se taire) -
 Zuk , niri erosiko soin berria ?
 Marieder - Nik , bai ... zuri
 Koxepa - Eta ~~xm~~ ... xapela ere ?
 Marieder - ~~B~~ai , xapela ere , eta dudarik gabe !
 Maria - Egoadi ixilik , Koxepa !
 Marieder - Bego , bere atseginaaren erakusterat ! Etzerautzu fitsik joan ?
 Nik nahi diozkat hoiak erosio ... Ala , beldur zare , zu , irringarri
 izan gero , zure alaba anderetuaren aldean ? Zaude deskantsu osoan ,
 zuretzat ere badauzkatz nahi dituzunak oro !
 Marian - Zedazko lepo nasai bat ?
 Marieder - Nahi duzuna
 Maria - Dentelezko bonet batekin ?
 Marieder - Zerentzat ez ?
 Maria - Bainan , andre ona , Jainko ona zare , beraz zu ?
 Marieder - Oh ! ez ; ez naiz , eiki , Jainko bezein ona ; handizki saris-
 tatzen , bai , niri zerbitzu egileak ! (à part) Ikusten dut hunekin
 badela zerbait egiteko ; eta , bururat heltzeko , behar naiz handizk
 joaktu (à Maria) ~~N~~un bizi zare , emazteki maitea ?
 Maria - Oh ! andre , ~~hemendik~~ hemendik ez urrun-urrun ... ausun , Oyhanzokoko
 bordan
 Marieder - Izen horrek , Oyhanzokoko borda , erakusterat emaiten daut
 bordari zaretela . Ala , zuena da delako etxea ?
 Maria - Oh ! andre ~~na~~ , gurea balitz etxea , ez ginuke , Pedro eta nik ,
 gure hamar haurrekin , orai dugun bihotzmin izigarria ! (elle se
 met à pleurer)
 Marieder -(à part) - Bihotza hausten daut , gaixoak ! (a Maria) Zoin da
 bada , zuen bihotzmina ?
 Maria (pleurant toujours) - Hogoi urte badu etxe ~~harriz~~ hortan garela ! ..
 Eta gure nagusia , diru beharretan dena , etxearen saltzera doa ,
 gogoaren kontra , segur eskualde hautan bozkez grifa handia duen
 Jainko-gabeko jaun bati , hunek eskaintzén baitio etxeak balio duen
 gehiago . Eta nola Jaun horrek baitaki Pedro haren kontra bozkatzen
 dela beti , errana du guretzat , debruek ez badugu - oh ! barkatu ,
 andre maitea - kanporat botatuko gaituela helduden Jondoni Martine-
 tan (elle pleure)
 Marieder - Ez egin nigarrik . Esti balinbada oraino , nik zuen etxea neure-
 tuko dut .
 Maria - zuk hoi eginen , andre on baino hobea ! ... Zortzi egun igurikatzen
 du gure nagusiak , heia bertze nehor agertuko zaionez . Bainan , ger-
 bere beharrarekin ...
 Marieder - Ongi da . Zuen etxea ez du delako jaunak izanen . Politikero
 hoi ez dakit nor den , nik dakitana da , ez dela bizikiko gizona ,
 molde hortan mendekioak dabilana . Harek baino gehiago emanen diot ,
 hik , bere etxeian , zuen nagusiari ; etxe hori , nik erosiko dut ,
 eta erosiko ... zuentzat !
 Maria (sanglotant de joie et se jetant à ses pieds) - Baditekea holakorik
 ? Oh ! ... andre maitea ! Erran baituzu oraixtian etzinela Jainko
 ona , haren aingeru ona segurik bazira ! Oh ! oh ! ... Eta guk , zer
 egiten ahal dugu zuretzat hemen ordainez ?
 Marieder - Ez dut zuen ganik deus igurikatzen ordainez , baizik jadanik
 galdua : niri garbiki erraitea Luixaren gainean dazkituetenak
 Maria - Huna , andre maitea . Luixa da ... (à Koxepa) Hi , mintza hadi ,
 nik baino hobeki gogoan hartuak ditun hemengo itzulikak
 Koxepa - Biak mintza gaiten . Huna ... Luixa ez da Luixa , bainan Frantzix-
 ka
 Maria - Eta hau , Koxepa , haren ahizpa

Koxepa - Eta hau , Maria Luixaren eta ene ama
 Marieder (ahurie) - Luixaren ama , nor ?
 Maria - Ni andre maitea !
 Marieder - Nola ? ... Zu , Luixaren ama ?
 Maria - Bai , bai ; ni , hemen Luixa erraiten dioten Frantxixkaren ama nai
 Koxepa - Hala , bai andre ; Frantxixka de andere Zeleztaren alaba , autre
 Zeleztak ez baitu gehiago autre izan behar ? ... hortakotzat
 Marieder (complètement ahurie) - Oh !... oh !... oh !...
 Frantxixka (venant de gauche , en chapeau , prête à sortir . Elle s'est
 repeignée et arrive bien coiffée , comme au premier acte) - Ni ,
 banun , tanta maitea
 Koxepa - Huna bera ; berak erranen dauzkitzu oro
 Frantxixka - Zer , nik erranen ?
 Marieder (vivement) - Fitsik , fitsik .(à Frantxixka) Eta , ene xapela?
 ... ahantzi ? ...
 Frantxixka - "aizoa , ni ! "emen naiz berehala (elle sort)
 Marieder (vivement) - Holaxet , milesker , ene maitea . (à Maria et
 Koxepa) Orai , utz netzazue Luixarekin
 Maria - Beraz , gure andre ona , konda ...
 Marieder - Bai , bai , konda nitan ; ez dut hitz bat baizik
 Maria eta Koxepa - Oh !... milesker ... milesker !
 Marieder - Bai , eta orai , berehala berehala , sukalderat !... (toutes
 deux sortent) Oraikoan uste dut bururat hel ; Luixa ez baitaki
 bertze hoiekin zer dugun iraganik , itzulikatuko dut ene poxi maitea
 eta badakiket (avec colère) zer ilobak ditudan !
 Frantxixka - (entrant le chapeau à la main) Huna , huna , tanta maitea ,
 hire xapela ! (surprise) Eta ... heiek ?
 Marieder - Heiek (se coiffant)... Joanak sukalderat . Eta ? ...
 Frantxixka - No , tanas , nik ez jakin , orai , zer nahi zuten nik erraitea
 Marieder - Zer nahi dun izan dadin ? (autre ton) Bagoazin ?
 Frantxixka - Abian ! (elle fait un pas pour sortir)
 Marieder - (très détachée) - Erran , Frantxixka ?
 Frantxixka (se retournant et très naturellement) - Zer dun , tanta ?
 Marieder - Ah !... ehaiz gehiago Luixa deitzen ?
 Frantxixka (attérrée) - Oi ! ei ! ai !... Xahu naiz ! xahu !... (essa-
 yant de se raccrocher) Eta , ni ... ni ... bai ! ni... eta ... eta ...
 bainan , bai , segurki , Luixa deitzen bainiz ! Ni , Frantxixka ?...
 booo !... Nork erran dautzu , ba , ni Frantxixka naizela ?
 Marieder (souriant) - a! ha ! ... nere erhi ttintilak !
 Frantxixka (désolée) - Oh ! nork erran dautzu , hoi ? Ai ! ei ! ai ! Zer
 behar dut , orai , ikusi ? ... Otoi , andre , otoi ! otoi ! otoi ! ...
 ez erran !... Oh ! ... xahu naiz !... Zer eginen dute nitaz ? ...
 Oh ! ... kanpoan emanen naute !!!
 Marieder (doucement) - Ez holaka , ene poxia ! ez din balio ; ni hemen
 naun , ez deraunate fitsik eginen (furieuse) Nitaz burlatzen dire
 etxe huntan ?
 Frantxixka (désespérée) - Ni , ez !... ni , ez ! ... Juramentu egiten dut ,
 andre , ni ez naizela zutaz ...
 Marieder (la calmant) - Badakit arras ongi , ene haurra , zu etzarela
 nitaz burlatzen . Bainan , beha zazu niri haurra , eta erran dieza-
 dazut egia garbiki , zerentzat , bada , deitzen zaituzten zu , Luixa ,
 etzarenaz geroz Luixa . Nun da , haurra , nun da Luixa , egiazko
 Luixa ?
 Frantxixka - "ainan ... erraiten badut , igorriko naute ? ...

Marieder - "obe , haurra ; nik , nerekin atxikiren zaitut ; ez beldur izan
 Nun da Luixa ?
 Frantxixka - ainan ... Luixarik ... ez da ?!
 Marieder - Luixarik ... ez dela ?
 Frantxixka - Ez , andre , ez da !
 Marieder - Beraz , Mme Dupommeau ?
 Frantxixka - Ez-eta ... Mme Dupommeau-rik ere M
 Marieder - Zer diozu , haurra ? Luixarik ez ? ... Mme Dupommeau-rik ez ?
 Zer ditake,bada ?
 Frantxixka - Huna , andre , huna . Andere Zelezta , beti andere Zelezta ;
 bainan erran behar Mme Dupommeau dela . Eta nola ez baitu alabarik..
 eta zuk , uste baduela ? ... Zuri bihotzminik ez emaiteko , ni behar
 naiz izan haren alaba . Hartako naute deitzen Luixa . Orai , andre ,
 bazare ?
 Marieder - Oh !... frikunak !... frikunak !... beraz , zu , zer zare hemen,
 haurra ?
 Frantxixka - Ni , hemengo sephia
 Marieder - Sephia ? ... frikunak !... "ta Koxepa ?
 Frantxixka - Koxepa , ene ahizpa
 Marieder - Zure ahizpa ? ... Eta Maria ?
 Frantxixka - Maria , ene ama eta Koxeparen ama
 Marieder - (au comble de la colère) - Nork asmatuko zuen ? Holakorik izan
 zitekeela ere . Oh ! frikunak !... herrestak !... xikinak !... Eta ,
 askotan ohätua nintzan ... etzitztela , beren letretan , beti gisa
 ber-berean kondatzen ! Bertzalde , ni harritua , nola Zelezta teman
 zagon ez igortzeko bere senarraren eta bere alabaren potretak , nik
 hainbertze , hainbertze aldiz galdu ondoan !... Zoroa , zoro han-
 dia , ni ! ... Orai , errex da ikusteko ! Bere ezkontza , bere haur-
 raren ukaitea oro ... kixkil txar horrek asmatuak ... ene ondoriota-
 sunaren biltzeko ... ; ustez-eta , ez nintzen ni , sekulan hunat
 etorriko ; hala , ez nuelakotz sekulan ezagutuko hoiен jukutria tzar
 ahalgegarria ! Ah !... baia ? Hola engana beren tanta !... Diren
 bezalakoak ! Ebien ! ene Frantxixka maitea , - hala baitzira , orai
 badakit - ebien ! Frantxixka maitea , hitzemaiten dautzut (avec
 mépris) ene iloba pollit ... hoiek... ikasiko dutela , beren gostuz,
 egun berean , zer irabazi duten beren tanta xaharraz horrela burla-
 tuz !

Frantxixka - Ah ! andre , otoi atxik ... gorderik ! ...
 Marieder - Bego , haurra , hoi ene gain (appelant) Koxepa ? Maria ?
 Maria (entrant avec Koxepa) - Zer da ?
 Marieder - Frantxixkak argitu nauela
 Maria - Bainan , gu , orai , zer bilakatuko gare ?
 Marieder - Jainko ona ! Igurika poxi bat ! (voyant la porte du fond s'
 ouvrir) Heldu dire . Jakinen duzue orai berean , zer zarezten bila-
 katuko .
 Gabriela (entrant avec Zelezta) - Horra heiekilakoa egina . Egon gaitun ,
 tanta , luzaxko ?
~~Gabriela (entrant avec Zelezta) - Norat abiatura haiz , Luixa ?~~
 Zelezta (voyant Frantxixka en chapeau) - Xapelarekin ? Norat abiatura
 haiz , Luixa ?
 Marieder - Alo ! hein ! aski hola , otoi , zure Luixarekin , andere Zelezta
 Zelezta (abasourdie) - Zer dion , tanta ?
 Gabriela (même jeu) - Zer da , bada ?
 Marieder - Ez egin zozoarena ! Etzauzue ongi joan
 Zelezta eta Gabriela - Bainan zer ? ... zer da ? ...

Marieder - Nere konplimendua. Ongi itzulikatua zinuten komediatto hoi : xoilki , etzinuten hortan partalier egin behar menditar neska gaizo bat , bainan zuen iduriko axeri zahar zimardikatsu bat !

Gabriela (furieuse , à Frantxixka) - Zuk , dohabakea ...

Zelezta (menaçante , la main levée) - Zuk , dohakabea ; saldu gaituzu !

Maria - Heia ! hunki zazu ? Nahi nuke ikusi !

Marieder - Bai , hoi ... hiruak dire nere argitzaireak . Sosaren gatik , hoinbertzeta raino zarezte apaldu . Enganatu , burlatu nahi ninduzuen Ondagizuela .

Zelezta - Bainan ... bainan ...

Gabriela - Nahi gaitun utzi xehetasunen ...

Marieder - Ez !... Zuen ganik ez dut deus aditu nahi . Enganiez , hartu duzue alegiazko alaba bat , Nik , hala etzenetik , egiten dut nere iloba . Huna hemen Frantxixka , nere ondoko bakar bakarra !

Frantxixka , Koxepa et Maria - Oh ! oh ! ... baditake ? ...

Marieder - Errexkiago ugurika dezaten nere joaitea , emaiten diozkatet , oraitik beretik , ene ilobaren etxe koeri , bortz ... egun ... mila... libera .

Maria - Bortz ... bortz ... Oi ! oi ! aldi...xartzera noa ! (elle tombe , reçue par ses deux enfants)

Frantxixka - Alo , gero ? ... haurkeria guti ! Gaizki hautatua laiteke ordua ... orai hiltzeko

Marieder - Adio ... betikotz ... arnegatzen zaituztedan ilobak . Badakikezue , zuen gostuz , behar dela utzi egiari bidea zabal , eta ez izan diruaz sobera gose !

Zaldun